



Biltzarra

Eztabaidatzeko proposamena



E
M
A
K
U
M
E
A
K

ЕМАКУМЕАК

**Eztabaidatzeko
proposamena**

ERANSKINA:

1. SARRERA ETA TESTUINGURU HISTORIKOA

- 1.1. Sarrera
- 1.2. Emakumeak eta lana historian zehar
- 1.3. Hogeitamabost urtetako historia
- 1.4. Krisiaren eragina Hego Euskal Herrian

2. EMAKUMEAK LAN MUNDU KONPLEXUAREN AURREAN

- 2.1. Etxeko ekoizpena
 - 2.1.1. Etxeko lana gainontzekoaren menpean
- 2.2. Murgilduriko ekonomia
- 2.3. Pobrezia femeninoa ote?

3. EMAKUMEAK LAN MERKATU OFIZIALAREN AURREAN

- 3.1. Emakume enpresari eta autonomoak
- 3.2. Denbora zati bateko lana
- 3.3. Langabezian dauden emakumeak
 - 3.3.1. Nesken langabezia
 - 3.3.2. Etxekoandreen langabezia
- 3.4. Lan bazterketa
 - 3.4.1. Kontratazioa
 - 3.4.2. Sexuen araberako lan banaketa
 - 3.4.3. Soldatak
 - 3.4.4. Promozio eza
 - 3.4.5. Prestakuntza
 - 3.4.6. Eraso sexistak
 - 3.4.7. Eskubide sindikalak

4. ERANTZUN ANTOLATUAREN BEHARRA

- 4.1. Mailak
- 4.2. Arauturiko lan merkatutik kanpo diharduten emakumeak
- 4.3. Lan merkatu arautuan dauden emakumeak

HITZAURREA

Ezin dugu gure herriaren historia aztertu emakumezkoen eskuhartzea alboratuz, ezin dugu ahaztu beraien eginkizuna edozein alorretan, industrializazio prozesutik hasita askapen eta erresistentzia borroketan partehartzearaino. Batzutan itzalean eta besteetan lehenengo lerroan, baina beti ere aktiboa.

Atxekitutako errola barnean mantenduz edo era berriztatzaile batez, ezarritakoa gaindituz, euskal emakumeek modu erabakiorrez lagundu dute gaur egun dugun errealitate soziala eratzen, aurrera egiten beraien berezko askapenean.

Euskal Herriaren eraiki proiektuak emakumezkoek iraultza prozesuan egile zuzena legez errekonozimendu osoa izatea exigitzen du. Gure eginkizuna da, sindikatu soziopolitiko izanik, ez bakarrik jokabide historiko hau ulertzea, sindikatu barruan zein langileriaren borroketan emakume langileen partehartzea eta berbaloratzea bultzatzea baizik.

1. SARRERA ETA TESTUINGURU HISTORIKOA

1.1. Sarrera

Euskal emakume langileei buruz mintzatzerakoan, kontziente izan behar dugu ezinezkoa dela gure gizartearen askapenerako oinarriak finkatzea emakumezko zein gizonezko askapena lortu gabe.

Euskal emakume langileen zapalketa berezkoa da. Baiestapen hau egia bada ere ez da nahikoa, beraz, hemen eta orain zapalketa honen mekanismoak azalarazi eta zehaztu egin behar ditugu; hau da, beren egoera ekonomia kapitalista duen nazio batean aztertu behar da, zeina lur-zatitua eta militarki jabetuta dagoen. Halaber, euskal emakumezkoaren kontzeptua euskal gizonezkoarenarekiko banaezina dela argitzea exigitzen du; hauek baitira bi sexuen arteko elakarkidetzatik abiatuz eta praktika iraultzaile baten bidez, gainditua izan behar duen kontraesanaren bi poloak.

Emakumezkoen zapalketari dagokionez, ezin dugu ahaztu azken batean, zapalketa honen arrazoi zuzena klaseetan zatituta dagoen gizartea egotean datzala. Ildo honetatik, emakumezkoen zapalketa egun, milaka urtetatiko garapena, ekoizpen erak eta giza egituraketen ondorioen batuketa dugu; hauek ekoizpen eta berrekoizpen baliabideen jabetza pribatua dute oinarri.

Emakumezkoen kontzeptua abstraktoki agertzeak, historiatik eta gertaeretatik at, planteamendu idealistan erortzea lekarke. Zentzu honetan, honako eite hauek aintzat hartzea komenigarria litzateke:

- sexuen arteko ezberdintasuna baldintzatzaile sozioekonomikoetan bilatu behar da eta ez biologikoetan.
- sexuen araberako banaketa soziala komunitate (gizatalde) primitiboetan hasi zen, klaseurreko gizartetatik pasatuz egungo egoerara heldu arte.
- emakumezkoen bazterketa ez da birsorkuntzan soilik bilatu behar, ekoizpenean duen jokabidean baizik.
- klase borroka gainditzea ez da baldintza nahikorik, baina bai beharrezkoa sexu zapalketa gainditzeko.

Sexuaren araberako lan banaketak, jabego pribatuaren sendarpenak, tradizio kultural baten finkapenak eta klaseko giza harremanek emakumezkoen zapalketa historikoa markatzen dute.

Gizartearen elkarren segidako eraldaketek ez dituzte inoiz jabego pribatu eta patriarkadoaren azken oinarriak zalantzan jarri. Hau dela eta, jokoan dagoena ez da edozein arazo isolatuen gainditzea, sinistarazi nahi digutenez, eredu sozioekonomikoaren gainditzea baizik.

Gizarte kapitalistak baimendu eta beronek ere sortu egiten ditu etengabeko erreformak emakumezkoen zapalketa agerpen formari zuzenduta. Erreforma hauek askapen borrokan aurrerapausu kualitatibo gisa aurkezten baditu ere, berauek, funtsean zapalketa bera mantentzeko eta borroka partzialei dagozkien planteamenduak asimilatzen erabiltzen ditu.

Aipatutako honek ez du hobekuntza partzialen lorpenen balioa ukatu nahi, berauek estrategia globalen barnean kokaturik egon behar dutela adieraztea baizik, sistemak asimilatuko ez dituztenak, hain zuzen ere.

1.2. EMAKUMEAK ETA LANA HISTORIAN ZEHAR

Elkarrekin lotuegiak azaltzen zaizkigun bi hitz dira, aski erabilia, baina, hala eta guztiz ere, erabili beharrekoak, historian zehar ezagututako kultura guztietan emakumeak eta lanak binomio askaezina osatzen baitute.

Azpimarratu behar dugu ez dugula aipatzen lana ekonomikoki ordaindua ala ez ordaindua den, "soldatapeko lana ala etxeko lana"; duela gutxi arte, eta oraindik ere kultura askotan, lana kasu gehienetan ez baitzen soldatapekoa.

Bi mende baino ez dira, iraultza industrialarekin batera, eta lana soldata elkartrukaketa sorrerarekin, lana, soldatapeko eta ez soldatapeko legez bereiztu eta banatzen hasten dela, baita bigarrenaren balioa galtzen ere. Bereiztu behar dugu azken honen lan izaera, eta aldi berean kontziente izatea, lan munduan sexu bitariko bat sartu berria bada, hori zalantzarik gabe, sexu maskulinoa dela, iraultza industrialaren izan arte, giza aha-lerin gehienak gizartea bizirik iraun zedin zuzendu baitziren; hau dela eta, kapital terminuetan etzegoen "metatzerik".

Eskuratzeko soberakinik ez zegoenez ez zeuden ez lan banaketa soziala ezta klase gizartea (feudalismoa ez zen kontraesankorra gizarte planteamendu honekin). Hala ere, guzti honek ez du esan nahi sexuaren araberrako banaketa ez zegoenik, gizartearen biziraupenerako beharrezkoa zen lana ia bere osotasunean, emakumeek egiten zuten etxeko lanaz betetzen zen. XVIII. mende arte, etxeko lanetik at ekoizpena oso txikia zen.

Emakumearen gainean ezarri eta ezartzen den harreman familiarra ez da hustiratzailea, zapaltzailea baino. zapalkuntza hau bermatu eta bermatzen duen instituzioa familia da.

Historialdi edo giza bakoitzean izan diren egiturak oso ezberdinak izan dira. Baina, ekoizpen bitartekarien jabego pribatua kapitalismoaren oinarritzko instituzioa den bezalaxe baita gizarte bakoitzaren era ezberdinak alde batera utzita langilegoaren hustiratzea bermatzen duena ere familia da, berdin hartzen duen eraketa, emakumearen zapalketa eta sexuaren araberrako lan banaketa bermatzen dituen instituzioa da. Honekin beraz, langilegoak normalean jasaten duen hustiratzeari emakume langilearen kasuan patriarkal zapalkuntza ere gehitu behar diogu.

XIX. mende amaierako eta XX. mende hasierako krisialdi industrialean, emakume lanetan masiboaren proletarizazioak langile sindikatu maskulinoen erresistentziarekin topo egin zuen Hauek industrial eta estatuen legediaren bidez emakume eta haurren lanari buruzko kontrol neurri bereziak ezartzea lortu zuten Sindikatuen erresistentzia hauek ez zuten emakumeen gainhustiratzea ekiditzea bilatzen, baizik eta, argi eta garbi alde batetik, birbaieztatu nahi zuten beraien jerarkia familiar eta aldi berean, lan merkatuan emakumeen konpetentzia ezabatu nahi zuten

Ezbairik gabe esan dezakegu egungo sexu lan banaketa sistema, kapitalismo eta bere ideologi aparatoren oinarritzko ezaugarria dena, ez dela aurrera eramanez gizonen partehartze aktibo barik, familiar zein ekoizpenean beraien nagusikeria defendatuz. XX. mendean hasieran gizonen kolektibotik ekintza kontziente bat burutu zen -kapitalaren interesekin bateratua- emakumeen kontra. Honela finkatu eta teorizatu egiten da -balioztatze- sexuaren araberrako lan banaketa.

Zatiketa honen bidez "konpondu" egiten ziren emakumeak soldatapeko lan merkatuan sartzean sortutako gatazkak emakumeen lan merkatuan sartze horri besteak beste-hurrengoak leporatzen zitzaizkion: mende bukaerako krisi ekonomikoa, lanaren desbalarizazioa eta langilegoak jasaten zuten bizitze mailaren jaitziera. Diskurtso hartan seinalatzen zenez, emakumeen bazterketa omen zen konponbidea umeen hilkortasun gehikuntza edota familia langilearen apurketa bideratzeko.

1929.eko Depresio Handiaren ostean (langilegoaren %30 baino gehiago langabezia) areagotu egiten dira gizonen kolektiboak, kapitalaren interesekin batera, bultzaturiko estrategiak. Honen ondorioz, sendotu egiten da lan banaketaren dikotomia soldatapeko lana, gizonen eskubide moduan eta etxeko lana, emakumeen lehenbiziko iharduera bezala. Beraz, finkatu egiten da lan merkatuaren egitura, sexuaren bidez bereiztua. Baina guzti honek baditu bere kontraesanak zeren eta mendearen gerrateetan industriak masiboki erabiltzeko baitu emakumeen lana.

Azken 60 urteetan -kapitalismoaren krisialdian sorturiko gatazkak "konpontzeko" sexuaren arabera gauzaturiko lan banaketa burutzen da. Banaketa hau izan da faktore eraginkorra eta iraunkorra merkantzia ekoizpenerako esparrutik emakumeak aldentzeko. Honela, segregazio honen ondorioz emakumeek gutxien ordaindutako lanak hartzeaz gain, familiarekiko menpekotasuna handiagotu eta emakumeen lan merkatuan sartzeko gogoia eragotzi egiten zen.

II. Munduko Gudateren ostean, emakumea erretaguardian, erresistentzia guneetan, intendentzian eta osasungintzan aritu ondoren, erreibindikatu egiten du soldatapeko lan merkatuan sartzea.

Europar, berreraikuntza da zeregin nagusia gizonen multzoa txikiagotua dagoelarik. Horrela, emakume askok lortuko dituzte lanpostuak industrian baina gutxieenezkoak izango dira zeren eta sexuaren eta lanaren banaketa kontsolidatuta baitzeuden aurreko aldian. Beraz, sartu egingo dira emakumeak lan merkatuan baina, gehienetan, etxeko lanaren gehigarritzat har daitezkeen lanak eskeiniko zaizkie: osasungintza, maila baxuko lanpostuak (auxiliarrak eta ATS), oinarritzko iharduera administratiboak (mekanografak, artxiiboak,...).

1950tik 1973ra izango da mendearen punturik gorena emakumeen -pake garaian- industrian lanean parte hartzeari dagokionez. Krisialdiaren ondoren enplegu berregituraketa berriak hasi ziren, zeinek lehen-dabiz eta sindikal onespenerekin emakumeengan eragina izan zuten, 30. urtetako Depresio Nagusian gertatu zen bezalaxe, hain zuzen ere. Azken 20 urteetan emakumeek progresiboki atzera egin dute sektore honetan.

1. 3. HOGEI ETA HAMABOST URTETAKO HISTORIA (1960-1995)

1959ean, autartikoa zen ekonomia-eredutik, merkataritza askera pasatzea eta nazioarteko mailan goranzko zen ekonomia-zikloa, ekonomia mailan emandako hazkundea azkar batetarako oinarriak izan ziren, berorren onarritako motorea industria arloa izan zelarik. Lan-esku eskaera handiak gizonaezkoen ezaren aurrean emakumezkoak kontratatzea bideratu zuen, beti ere lan egoerako sexu-baztertzaren barruan, lan baldintza txarragopean eta beti ere alokairu murriztekin. Baina aldeko ekonomia gorabehera hau EHEn "baby-bom" deiturikako fenomenoaren barnean peto-petoan sartuta zegoen momentu berean gertatzen zen, hau da 20 eta 35 urte bitarteko emakumeak beraien semeen sorkuntza eta hazkunderan murgildurik aurkitzen zirenean; era horretan IFTEk (alokairu menpeko iharduera Femeinoaren Tasak) baxu mantentzen segitu zuten.

Petrolioaren krisiak zeina HEHan 1911 an hasi baitzen areagotzen, beste herrialde batzuetan bezalaxe honako hau suposatu zuen: beste behin ere lan-birmoldaketak lehenbiziko emakumeen artean ardaztu zirela, geroxeago sindikatuekiko elkarbizitzarekiko kapitalaren makroekonomiako arazoak garatuko ditugu.

1980eko hamarkada, "demokraziaren sustraitzea" deituriko fenomenoaz ematen da ezagutzera, hamarkada honetan "ongizatearen Estatu" (hezkuntza, osasuna, zerbitzu sozialak) deiturikoa garatzen da, batez ere gutxienetatik abiatzen zelako eta frankismoak estalitako beharizan gogorak zeudelako Guzti horrekin batera HEHn Baskongadetako eta Nafarroako Autonomia-Administrazioak ari dira garatzen; bi faktore hauek hirugarren arloaren edo zerbitzuen garapena erakartzen dute, beronek emakume askoren sarrera bideratu du alokairu menpeko lan-munduan, baina orain ere sexuen arteko rol-jokua eta lan-bazterketa mantenduz.

1990eko hamarkada ekonomia-krisialdi berri baten barnean gauzatzen da, industrian eta lehen arloan (momentu honetan zerbitzuen arloan ere gehiegizko lan-eskua dago, informatizazioa dela eta) gehiegizkoak izateagatik bete gabe geratzen diren lanpostuak betetzeko gai ez den hirugarren arlo batekin eta HEHn erabat suntsituta dagoen industria, eta zokoratutako lehen arloarekin. Orokorrean langabeziko kopuru ikara-

garriek, (%25a) norgeihagoketa amorrutzko egiten dute, beste behin ere, mende honetako krisialdi askotan bezalaxe alokairu menpeko lanpostuetatik emakumea baztertzerak erakartzen dutelarik Ekonomia Murgildura edo etxeko lanetara bidaltzeko, non kapitalaren interesak hobetoen betetzen dituzten.

1.4. KRISIAREN ERAGINA HEGO EUSKAL HERRIAN

Funtsezkoa da, oraindik ere gainean dugun krisiak eragindako efektuen radiografia izatea, horrelaxe baino ez baitugu ulertuko hartutako neurriak ekonomia arlotik baino haruntzago doazela, langileriaren kontzientzia zuzenki eragiteko.

Egoera latzen politika ezberdinak edota lan erreformak, zeinak burgesiak krisiaren irtenbide posible bakar legez inposatu baitituen, gutxiegi izateaz gain langileriarengan ondorio ezin txarragoak izan ditu:

- langabeziaren etengabeko hazkundera, zeinak lanpostua eskuratzeko barneko lehia areagotzen baitu. Honek hobekuntza soziala eta lansarien hazkuntzaren aurka jotzen du eta borroka eta erresistentziarako gaitasuna ahultzen du,

- ardatz ekoiezleen aldaketa sakonak, industria eta nekazaritzaren jaitsierak eta hirugarren sektorearen hazkundeak eraginda
- haren ondorioz eta hirugarren sektorearen berezitasunak eraginda, ezegonkortasuna gehitzea, honek dakarren ziurtasun ezarekin,
- orain arte lanpostu finko, lansari ziuerra, eskubide sindikalak onartua., eta abar zituen kolektiboren gutxitzea eta beronen lan baldintzen txartzea.
- babesgabe eta erabat hustiratu dauden sektoreen handitzea. Hauek gazteek, kualifikaziorik ez dutenek, etorkinek...eta kasu guztietan gehiengoak diren emakumezkoek osatzen dituzte.

Egoera hauek euskal emakumeen bizi baldintzetan eta kontzientzian ere oso eragin zehatzak izan dituzte. Azpimarratzeko da emakumeen erabilera "erreserba boltsa" legez -lanesku merkea industria hazkunde garaian-, gaur egun lehen sektorea izanik -gazte eta 55 urte baino gehiago dutenekin batera- lan merkatutik kanporatua izaten dena, langabezia, behinbehinekotasuna eta lan murgilduaren mailarik altuenak nozitzen dituelarik.

Ia estatistikarik ez badago ere, agerikoa da lan merkatutik desagertu diren lanpostu asko ekonomia murgildura igaro direla. Entrepresan lan egiten zuten pertsona berberak dira orain etxean lana burutzen dutenak, oinarriko lan eskubideen kalterako.

2. EMAKUMEAK LAN-MUNDU KONPLEXUAREN AURREAN

Ponentziaren lehen puntuetan dugun bezalaxe, lana "merkatu ofizial" batean ordaindutako lan-eguna baino zertxobait gehiago da, emakumea delarik LAN sarearen konplexotasuna bizi eta jasaten duena, alde bietatik ikusita: ordaindutako aldetik eta ordain gabeko aldetik, eta lehenaren barruan lan ofizialaren barruan eta murgilduriko lanaren barruan.

2. 1. ETXEKO EKOIZPENA: EKOIZPENA-BERREKOIZPENA

Kapitalismoaren ezaugarrietariko bat honako hau da: emakume langileek ez dutela beraien lan indarra baino errekurtsio gehiagorik, zein alokairu baten trukean saldua den. Baina lan guztia ez da ordaintzen, eta errealtateak alokairu-era errentaren (ekoizpen formala) erarik usuena eta garrantzitsuena frogatzen baldin

badu ere, badira zenbait lan eta ekoizpen murrizt (informalak), beroien ezaugarri nagusia duten "ikusezintasuna" dela dirudielarik (etxeko lana, "bolondreseria", murgilduriko ekonomia).

Ekoizpen informal hau (B.E.G. ean agertzen ez dena), "ekonomia osagarria" ere deitzen dena, batez ere emakumeek egindakoa da edota gizartean beraiei egotzia. Sortzen duen aberastasunagatik garrantzitsuena ekoizpen berrekoizpeneko etxeko lana da.

Familian sortzen den aberastasun hau da sistema kapitalistari gizarte gastuaren maila baxuagoak iraunaraztea bideratzen diona (gaisoei, adinekoei, umeei, ... emandako laguntza, hezkuntza osagarria, ...), alokairu merkeagoak ordaintzea eta lan indarraren birsorkuntza (zehazturiko gizarte maila batean hezia) baita errola eta gizarte-maila batekoa izatea errezago bereganatzea ere. Hau da, ez da bakarrik lan-indarra birsortzen, baizik eta etxe barruan ere gizarte-mailak ere birsortzen direla neska-mutilak klaseen ibilbidean kokatzen direla.

Aipatutakoak halako ondorio du, non zera esan nahi duen: sistema kapitalistak ez duela emakumea bakarrik erabiltzen "gizarte-sisteman erabili beharko lukeen presupuestuen bideko gastu atal handi bat aurrezteko", baita emakumeak "eman" egiten dituela ere, beharrezkoa den giza-kapitala ekoizpena mantentzeko, bere menekotasun-pairamen-jasankortasun paperarekin klase-errolaren opresioa iragarritz.

Hau da, eta ez hainbestean murriztasuna eta emakumeen alokairu- maila baxuagoa, sistema berriro ere emakumea etxera itxuleraztera eramaten duena, ekonomia krisi garaietan, zeren honek gizarte aurrekontuak jaitea bideratuko baitu (ekoizpen-gastuen aurrekontuak areagotuz), "gizartepakea" arriskuan jarri gabe. Baina ez bakarrik ekonomia-krisialdian, orain arte pentsatzen genuen bezala, baita demografia-krisialdian ere, biztanlegoa areagotzea ezinbestekoa baita bai kontsumoa iraunarazteko bai lan-merkatuaren giza-kapitala berrizteko.

Etxe barruko ekoizpena baloratzea konplexua da, baina metodo eta teoria ezberdinak erabiliz egin izan da. C. Soferrek (1985) mendebaldeko herri ezberdinetan egindako estimazioek etxe barruko ekoizpenaren balioaren ideia bat ematen digute, zeina B.E.G. ren %28 eta %49ren artean ibil daitekeen. Frantziar Estatuan, zeina homogeneoagoa izan daitekeen HEHrekiko, onerizpenak %28 eta %44 artean ibili dira.

Zenbait kalkulu errazek honako hau frogatzen digute: errealitatean gizonek baino emakume gehiagok burutzen dutela nola halako ekoizpen- iharduera bat.

Denbora osorako eta etxeko lana eta lan-merkatuan egindako aktibitate-tasak kontutan harturik honako hau ikusten da: emakumeen arteko % 81,2k eta gizonezkoen %70,8k ekoizpen-iharduera bat betetzen dutela, ea %15 gehiago delarik Aktibitate-Tasa Femeninoa.

Aktibitate Ekoizleen Tasak aldarrikatu behar ditugu, emakumezkoen ekoizpena berrabiltzeko.

Era orokorrean, etxean egindako lana kontabilizatzek aldeko ondorio asko erakar litzake emakumezkoen etxeko egoera ekonomikoa hobetzeko. Berori Estatuko B.E.G. an sartzeak lehen urratsak ematea suposatuko luke Norberaren Segurantzaren alde eta Jubilaziorako eta Ezintasunerako erretiroak eskuratzea.

2.1.1. Etxeko lanak gainontzekoaren menpean

Lan mota hau ekonomia formal eta murgildutako ekonomiaren artean mugitzen da (ez aseguratua ez agerikoa).

Alor honetan pribatu-esparruan gizartearen arabera, emakumezkoen egotziriko lanaren transferentzia gertatzen da horren ordezkari bat jasotzen duten emakumeen alde. Beste garai batean beraien funtzioa familiaren gizarte estatusa isladatzea baldin bazen, gaur egun, beste emakume batzuen lana ordezkatzeko da, horrela gizonezkoek etxeetako lanetan duten parte hartze eskasa "ezikusia" egiten duen arituen, eztabaidagarri gertatzen ez delarik etxeetako lan banaketa emakumezko eta gizonezkoen artean. Horrek bai alokatu izaten diren emakumeentzat eta bai alokatzen dituztenentzat esanahi ezezkorrak erakartzen ditu.

- Enplegataileei", aldi berean langileak diren emakumeak batez ere, ikusgarri diren lanen arduraren beraien menpean hartzea suposatzen die, baita "ikusten ez denaren" antolamendua eta zuzendaritza ere, gizonezkoaren aldetik hauen errekonozimendurik ez dagoelarik, emazteak "neskamea baitu".
- ipagarri bezala adieraz dezakegu emakume enplegataileek ez dutela onartzen enplegatuek beraien etxeetan egindako lana bere osotasunean (ez dutelarik ordaintzen, ez dutelarik duintasunez onartzen). Guzti horrek egin behar hauen onarpen eskasa erakartzen du emakumearen beraren aldetik.
- "Enplegatuek" gizartean baloratua ez den lana garatzen dutenez eta %70an ez kontratu ez lan baldintzarik ez dutelarik, gainontzeko alorretan baino handiagoa den giza eta lan opresioa jasaten dute.

Lan kontratua ez da beharrezkoa baldin eta aldeetariko batek ez badu eskatzen. Alokairuaren %45 arte "espezietan" ordain daiteke. Ordutegia aldatzea da eta enplegataileak finkatzen du. Kontratua bukatu baino lehen bertan behera gelditu daiteke kontratatzailearen ezadostasuna dela medio. "ILT" dela eta, egokitzen diren laguntzak bajaren 29. egunetik aurrera jasotzen dira.

Guzti honi lan baldintza ezin txarragoak gehitu egin behar dizkiogu; halaber, alokairuak oso baxuak izaten dira. Hego Euskal Herrian, %80ak hileroko 60.000 pztaz jasotzen du oso lanaldi luzeen truke (%84k astero 40 ordu baino gehiago lan egiten duela agertzen du) eta ia %70 ez dago Gizarte Segurantzari.

Azterketa hau orokorrean gertatzen denaren isladatzat har daiteke: Legeak ez ditu emakumeak zuzenki baztertzen, kolektibo zehatzak baizik eta argi dago kolektibo ezberdinek tratamendu ezberdina jasotzen dutela.

Era honetako lanaren eskaintza delarik eta, enplegatuatariko asko eta asko, portzentai handi batean, oso adinekoak dira, ea %35a 40 urtetatik goragokoa. Honek, Biztanlego Aktibo Femenino bezala kontabilizatuko balitz emakume hauen aktibitate tasei buruzko datuak aldatuko lituzke. Beraietariko askok uko egin diote bestelako lan mota bat aurkitzeari (prestakuntza falta, adina, ...). Benetan infracomunitateak diren lan ordutegiak garatuz eta betez (etxeanizetako langileak eta norberaren etxeak) aurrera ateratzen dituzte beraien familiak, zeinek beraien laguntzarik gabe kasu askotan ezin izango luketen bizi izan.

Estatistikek "oso alegereki" jaulkitzen dituzte datuak, hala nola: Hego Euskal Herrian 30.000 familiek baino gehiagok beraien osakide guztiak langabezia dituztela, eta aldi berean podere publikoek "langabeziaren baldintzez eta gezurrezko kopuruetaz hitz egiten duten bitartean" ezin baitute azaldu nola bizi daitezkeen.

Emakumearen zeregina mahai gaineratuz gero, ulergarri bihurtu daiteke biziraupena. Emakumezkoek, eta are gehiago amek, edozein kosto pertsonal jasaten ere, bere etxera baliabideak eramango dituzte, "garbiketaren arituko dira" egunak ematen duen neurrian; aldi berean, etxean nozitzen duten baliabideen eskasia bere ahaleginez beteko dute. Bere errola dela eta lehena izango litzatekeen "borondatez onartutako" ekonomia murrizketak jasotzeko orduan, familiako gainontzeko zertxobait gehiago egoki dakien, eta senarraren eta langabezia diren seme heldu horien diru sarrera falta gutxiago nabarmen dadin. Beren lana kontabilizatuko balitz agerian geldituko litzateke langabezia gehien bat maskulinoa dela.

Gaur egun, nabarmendu behar dugu "europar" fenomenoaren emakume etorkinen kontratazioa etxeko lana eta lan murgildua egiteko; HEHn ere zabaltzen ari den fenomenoaren da, gero eta gehiago erabiltzen ari

baitira kapitalak eragindako hirugarren munduko herrietako emakumeak, aurreko denboran nekazal gune-hirako etorkin joeraren orde.

Etxeko langileen kolektiboaren egoerarekiko erantzun eza sindikal mailan dagoen hutsune sakon eta esanguratsua dugu.

2.2. MURGILDURIKO EKONOMIA

"Murgilduriko Ekonomia" (aurrerantzean M.E.) oso terminu zabala da eta kontabilizaturik gabeko aberastasuna sortzeko erak guztiak hartuko lituzke bere barnean, beraz, horren arabera, etxeko lana ere M.E. izango litzateke. Era berean hor sailkatuko genituzke esate baterako: dibisen trafikoa, diru beltzaren errentabilitatea, izenik gabeko banku-kontuak, drogen merkataritza, prostituzioa, ... Hemen honako hauek baino ez ditugu hartuko kontutan: merkatu formalean garatu litekeen ondasun eta zerbitzuen ekoizpena, baina zergak, gizarte-kargak, kontrolak etab. ekiditzeko "ezlegaltasunean" garatzen direnak, garapen hori formalki izaten ez delarik.

M.E. an garatzen diren aktibitateetariko asko ez dira krisialdiak eragindakoak, baizik eta beraien izateak HEHko ekoizpen-ihardueran ohiturazko izatea dutenak dira, nahiz eta beste batzuk entresa kostuen egiturak izandako aldaketei erantzun diezaiaketen. Kasu bietan, M.E.k kostuak murriztuz eta etekinak kapitalaren alde banatuz funtzionatzen du; etekin hori zergetatik eta gizarte ordainketatik aske geratzen da, eta gainera alokairuak nahiko baxuak dira, lan-kontratuen menpe ez daudelarik. Halaber, M.E.k ez du funtzionatzen ikasketa-esparru bezala, ezta gaitasun-arlo bezala ere, horrek honalako hau suposatzen duelarik: M.E.rako bidaia itzulerarik ez duen bidaia dela kasurik gehienetan.

Kapitalak ekonomia murgildua helburu bikoitzez erabiltzen du, irabazi tasak berreskuratzeko eta langileriaren gaineko kontrola areagotzeko, langabeziaren kosto soziala zurrizteko:

- Enpresarientzat izugarritzko etekinak ekartzen dizkio, laneskua, zergak eta azpiegituraren gastuen merketzea, halaber, lan gatazken desagertzea eta kanporaketa libre;
- Instituzioentzat alde egiteko balbula da, hau dela eta, bere aurka jo beharrean babestu eta zaindu egiten dute;
- Aldiz, berau nozitzen dutenentzat erabateko ezegonkortasuna, lan eta sindikal esparruetan oinarritzko eskubideen galera, kontratazio eta gizarte segurantzarik eza, istripuz jota izateko arriskuaren areagotzea, egutegirik eza, lanaldi arbitrarioa enplegatzaileak ezarrita, edo des-taiua... oporraldiaren eskubidearen galera, bajaldiak, jubilazioak, bidezko lan saririk eza, etabar.

Norberaren etxean burutzen da, ixilpeko tailerretan, akademietan, nekazaritzan, arrantzan, faltsuak diren kooperatibetan, kaleko zein etxez etxeko salmentetan, ostalaritzan, adineko, ume edota gaixoen zainketan... eta instituzioetan bertan.

Agerikoa denez ez dago estatistikarik, nahiz eta egindako hainbat ikerketen arabera zera ondoriozten den: etxeetan egindako ekoizpen-iharduerak gehienetan emakumezkoek egindakoak direla. Etxeetatik kanpo egindako zerbitzuen arloko iharduera edo aktibitateetan, emakumezkoen eta gizonezkoen arteko proportzioa antzekoa da.

2.2.1. Nork egiten du lan murgilduriko ekonomia?

Langabeziaren eragin handiak, emakumeen kontratazioek iharduera gutxi eta zehatzetan, familia laguntzaren mailako gain errepresentazioak, etabarrek bultzatu egiten dituzte emakumeak ekonomia murgildura.

Gizartearen presioak konbentzitu egiten ditu emakumeek berauen soldatapeko lana etxeko lanarenean utz dezaten. Presio hau entpresak, enpresariak, lankideek eta sindikatuek ere burutuko dute. Baita ka-

letik ere emakume langileak etxera itzul daitezten eta ekonomia familiarra, berauen bigarren soldata erdiaz, osa dezaten aldarrikatuz.

Emakumeek, batez ere ezkonduak, ezkongabe daudenek eta gizonek baino errezago onartzen dute kanporatuak izatea. Askorentzat, gaizki ordainduta eta bigarren mailakoa den behin behineko iharduerari eta batez ere lanaldi bikoitzari amaiera ematea izango da.

"Etxeko andreak" deituriko kolektiboaren atal batek onartu egiten ditu enplegu era horiek, etxeko lanekin batera eraman ahal dituzten aktibitateak garatzeko asmoarekin eta aldi berean familiarentzako diru-iturriak handitzeko nahiarekin. Baina kolektiboaren beste atal handi batek egun oso edo ordu batzuetako eta iraunkorra eta arauzkoa izan daitekeen beste enplegu-motarik aurkitu ezin duelako onartzen ditu, nahiz eta onartzeko jarrera izan baduten.

Merkatu formalean lan-postua aurkitzeko zailtasun honek ere langabezian aurkitzen diren emakume gazteak eramaten ditu Murgilduriko Enplegua garatzera. Atal honen barruan motibazioa handiago aurkitzen da lanpostua bilatzeko emakumezkoen artean, zeinek eskaera maila murriztagoa duten edozein lanpostu onartzeko orduan.

Aitzakirik gabeko gizarte-atzeratzeak (halaber ekonomiarena), berorrek dagoeneko degradatuak diren emakumezkoentzako lan baldintzak txartoagotu egiten dituelarik; era honetan emakumezkoek zailagoa ikusten dute lan-merkatura sartzea, eta lortzen dutenean arauz kanpoko baldintzetan izaten da.

Dagoeneko esan dugu etxeko edo etxeetarako lanaren gehiengo emakumezkoek egiten dutela. Gai nontzekoa, azterketa ezberdinen arabera proportzionalki berdintasunean egiten da. 1.985ean E.A.E. an 400.000 langile ari ziren M.E. an (merkatu formalean ari zirenak 606.000 zirenean aldi berean); Murgilduriko Merkatu honetan ari ziren langileetatik 306.500 emakumezkoak ziren (213.000 etxeko andreak eta 93.500 gazte, erretiratuak eta epe luzerako langabezian zeudenak), guzti horrek zera esan nahi duelarik: Murgilduriko Ekonomiaren %77a emakumezkoek garatzen dutela.

"Emakumezkoen izkutuko lana informalitatean oinarritzen den lan aktibo gehiengo bezala ordezkatzeko da". Etxetik kanpoko M.E. an diharduten emakumeen portzentai handiari etxe barruko M.E. an dihardutena gehitzen badiogu, egiaztapen honen neurria ikusiko dugu.

Emakumeen murgilduriko lana ez da, beraz, ez bakar batzuen kasua ez aldi baterako kasua. Aldeantiz, emakumeen lan-merkatuaren oinarritzako eta nagusi den kasu baten aurrean aurkitzen gara. Eta ezin dugunez ahaztu, batez ere atzerakoiak dituen ezaugarriez inguraturiko lan-baldintza batzuen aurrean. Alokairuak, ordutegiak, lan-erritmoak, osasun-baldintzak, sindikatu-eskubideak, etab, gutxienekoen azpitik aurkitzen dira. Guzti horiek momentu historiko honetan areagotu egiten direlarik, zeinetan kapitalak dagoeneko ahaztuak ziruditen lan-ereduak berriztu nahi dituen.

Laburki, sistemak taktika ideologiko ezberdinak erabiltzen ditu emakumeek naturalizat har dezaten beren leku nagusia etxean dagoela, familia zuzentzen, seme-alabak zaintzen, etabar-

Gizonak ere erabiliak izaten dira emakumeek lanpostuak betetzen dituzten bitartean gizonezkoen dagozkienak lapurtzen dizkietela sinistertzeko dielarik. Hau dela eta, gizonen lan bihurtzen da ere emakumeak etxera itzuleraztea.

Emakumeek etxera itzuleraziz gero, soldata lortzearen beharra izaten jarraitzen dute, batzutan soldata bakar delako, hainbatetan gizonek etxera eramaten duten dirua nahikorik ez delako familia mantentzeko eta bestetan estatus soziala eta exigitutako kontsumo maila mantendu behar delako.

2.3 POBREZIA, FEMENINOA OTE?

Zati honek garapen sakonagoa eskatzen du, baina ezin dugu aipatu barik utzi, orain arte azaldutakoaren laburpen gisa, arazoa emakume askorentzat gizonarekiko dependentzia ekonomikoan datzala edota "in-

dependiente" askoren prekarizazio ekonomikoan. Honen ondorioa zera da: rol femenino-rol maskulinoaren sinbiosia apurtzen denean, emakumea pobrezia zein marginaziora bultzatuta dagoela, gehienetan.

Gasteizko Lan eta Giza Segurantzaren Sailak, "SMI delakoaren hartzaileen zerrenda" aztertzen zuen txosten batean, ondorio batzuk atera zituen, pobrezia-aren feminizazioa frogatzen baitzen, hau da, zeintzuetan SMI delakoaren hartzaileen ehuneko handia emakumezkoak zirela guraso bakarreko familia unitateko emakumeak, alegia.

1989an Arabako Foru Aldundiak txosten bat burutu zuen (Emakumea eta marginazioa Araban) zeinean emakumeen marginazioaren oinarritzko arazo gisa baliabide ekonomiko eza agertzen baitzen; bertan kolektiboaren %15a 20-40 urte artean zegoelarik. Eta guztiek amankomuneko ezaugarria zuten: lanaren behin behinekotasuna; %30 baino gehiagok lanen bat zeukan baina langabezian zegoen; %22 etxeko lanean zebilen; %25a aldikako lanetan ari zen, etxeko langile gisa gehienetan, eta %7ak lan "ez-legaletan" (prostituzioa) ari zela aitortzen zuen.

Emakume horiek, batzuetan besteko 2,1 haur zeukaten beren kargura, azpimarragarria da %25ak ez zeukala diru-iturririk (ezta SMI delakoa ere, berau lortzeko norberaren etxebizitza edukitzea beharrezkoa baita eta emakume horiek gurasoekin bizi behar baitute); ia %35ak oinarritzko soldata baino gutxiago kobratzen zuen; %10ak oinarritzko soldata baino gehiago jasotzen zuen eta besteek diru laguntza instituzionala hartzen zuten.

Beraien heziketa maila baxua izan arren (%10ak ez du ikasketarik eta %3'5 analfabetoa da) krisiaren eraginaz alde hauetara goi edo erdi mailako ikasketak egin dituzten emakumeak sartzen ari direla nabarmentzen da, senarrarengandik banatu ostean kasu askotan.

Banaketa horiek egoera larriak sortzen dituzte, senarrek ez baitute dirurik pasatzen, eta emaztea, aipatu den bezala, langabezian aurkitzen delako, irtenbiderik gabeko langabezian, gainera. Txosten horretan, emakumezkoen %22ren arazoak banaketatik sortzen ziren; %85 emakume langilea (aktiboa) zen, baina berorren %50 langabezian zegoen, %12ak soilik lan finkoa zeukan, besteek (%26ak) "ITP delakoan murgilduriko ekonomian edo etxeko lanetan zihardutela.

Honela, 20-40 urteko kolektiboaren zati bat "marginaziora" bide ezberdinetatik ailegatzen den bitartean, emakume banatuak ekonomia faktoreak eragina heltzen dira (soldatapeko lanpostu faltari lotuta). Zailtasun ekonomikoak kronifikatzen direnean epe laburrean bestelako marginazio azaltzen ari dira.

Banandurik dauden emakumeak edozein lan onartzera ondoen egokitzen diren izan arren, haien artean duten elementu amankomuna diru sarrera nahikorik-eza da (%80ak ez du gutxienezko soldata gainditzen). Lanpostuan eraso sexualen arriskuaren aregotzea nabaria da talde honetan.

Abiatzen ari garen ekonomi biko gizartea -lana eta aberastasunaren banaketa desorekatuta- langabeziaren eta txirotasunaren hedapenarekin batera, biek emakumeengan eragin handiagoa dutelarik, berdintasun ekonomiko eta sexual arlotan lortutako aurrerapenak baldintzatzen ari da atzera pausuak ere ikusten direlarik.

Borroka feministak, balantzea egin baino, inoiz baino gehiago estrategia egin behar du; balantzea burutzen dugun bitartean izandako lorpenak sistemak ken baitiezazkiguke; ezin ahaztu HEHn krisi ekonomikoak osagarri politiko garrantzitsu bat duela: giza eta nazio borroka geldiaraztea, hain zuzen ere. Honen ondorioz, euskal emakume langileek osaturiko multzo handi baten militantzia politiko eta partehartze soziala guztiz mugaturik gertatzen da gainbizitzeko borroka lehentasuna hartzen baitu.

3. EMAKUMEAK LAN MERKATU OFIZIALAREN AURREAN

Mendebaldeko gizartean 60 hamarkadan lan-merkatuan emakumearen parte hartze formala hasi ze-

netik eta gaur eguneko, mugimendu feministen sorreratik, asko idatzi izan da puntu honen inguruan, ardatzezko eztabaida gaia baitzen: lanarekiko baztertzea, alokairuarekikoa, lan merkakutan sexu-bazterketa, eraso sexuala, ... HEHko emakumeok gaur zerbait baldin badugu, daukagun hori datuak izatea da. Zenbakiak eta zenbakiak, zeintzu kasu askotan horretan bukatzen diren: zenbakien ikerketan.

Ikerketen tratamendu metodologikoan aurrera egin behar dela uste dugu, nahiz eta horretan ere garapen eta aurrerapen bat egon dela sinisten dugun, hala ere ezin dugu sinetsi nahikoa izan denik.

3.1. Fokatze gonbaratiboa

Emakumezkoen lan egoera aztertzeke orduan fokatze nagusia fokatze gonbaratiboa deitu ahal dugu-na izan da. Ikuspegi honen barruan emakumea gizonezkoen lan egoeraren barruan aztertzen da, era horretan emakumezkoen lan egoeraren erreferente gonbaratibo bezala hartzen da.

Fokatze honen barruan inolako kritikarik gabe ordaindutako lan munduratzea gizonezkoen lan-portaera imitatzea dela onartzen da (arlotan ekoizleak, lanpostuak). Lan-eskuaren ikerketa estatistikoa da gehien erabilitako prozedura metodologikoa, estatistika horietan erabilitako kontzeptu eta nozioak bereganatuz.

Ikerketa hauen emaitza erabat ezaguna da, emakumezkoen lan-merkaturatze murriztasun hitz egiten digute, bertan gertatzen den sexu-bazterketaz eta alokairuen inguruan gertatzen diren ezberdintasunetaz.

Honen arabera, E.A.E. an 94.06.31 an 361.600 emakume aktibotzat jo ditzakegu (lan egiteko adinean dauden 882.000tik); berorietatik 233.500k baino ez luke lanik izango, langabeziaren tasa %35a baino handiagoa gertatuko litzatekeelarik. HEHrako, 1.993eko datu homogeneoak kontutan harturik, 395.100 aktiboak ziren (lan egiteko adinean zeuden 1.099.000tik), berorietatik 273.300 lanean zeuden, langabeziaren tasa %31a zelarik.

Sektoreen arabera nagusiak dira zerbitzuen sektorean eta zehatzago Osasun sektorean, Hezkuntzan (batez ere aurrekolan), Gizarte Zerbitzuetan eta Ostalaritzan. Lanean diharduten emakumeen artean %80ak zerbitzuen arloan egingo luke lan.

3.2. Fokatze kritikoa

Fokatze honetan, estatistikek enpleguaren kontzeptua lanarena baino hestuegoaz zehazten dute, horrek etxeko andreak biztanlego aktiboaren barruan ez onartzera eramaten dutelarik.

Era berean "ekoizle" kontzeptua ere berraztertu egin beharko litzateke, zeren lan ekoizle bezala ordaindua dena bakarrik hartzeko joera dago, eta ekoizle diren lan asko daude ordainduak ez direnak, eta ordainduak diren asko daude zeintzuetan ekoizpena oso murrizta den.

XX mendearen bukaeran baztertze berri batekin egiten dugu topo, enplegurik ez dutenen baztertzearekin, zeinekin sexu femeninoak, talde honen zatirik handienak, mehatxu berri bat ikusten duen bere gainean.

Konnotazio guzti hauek eta eztabaida eza dira gizartean "enpleguaren giza-gainbaloraziora" eramaten dutena. Honela zerarekin egiten dugu topo: enplegua errealitatean gizarte-erakunde bat dela ezaugarri zehatzak dituen. Gizakiari gizartean erreferentzia-koordinadak ematen dizkio, besteenganako elkarrengana bideratzen du, ordainduta dagoen status eta autoestima ematen dio eta erreferentziarako gizarte-talde bateko identitatea, familia baino zabalagoa diren erakunde batzuen bitarteko bizitza publikoan parte hartzea bideratzen du (enpresa, sindikatua, merkatua, ...)

Fokatze kritiko honen barruan lan-merkatuan errolen banaketak duen eragina kokatu behar da, ho-

nen arabera emakumezkoek lan merkatura jotzeko orduan dituzten arazo objetiboen eragilea izateaz gain, garrantzi handiko arazo subjektiboen determinantea ere bada.

Analisi honen barruan, emakumezkoek eta batez ere ezkonduko emakumezkoek, lan egiteko eskubidea aitortzen zaie, baina eskubide hau ez da onartzen beharizan bezala, gehitutako fakultate bat bezala baizik, zeina beharizan nagusi baten menpean dagoen: etxebizitza, senarra eta seme-alaben zainketa. Gizonezkoak, alderantziz, familia-burua da, zeinentzat familia- betebeharrak bigarren planuan geratzen diren enpleguaren aurrean.

Gizonezkoek lan eta familia errolak sekuentzionalki bizitzen dituzte, hau da, bat bukatzen dutenean besteari ekiten diote. Alderantziz, emakumezkoek aldi berean bizi izaten dituzte, eta nahiz eta ordaindutako bere lanpostuan izan ezin dute utzi beste errola aparte.

Errolen ezberdintasun honi, emakumezkoari ezarritako beste menpekotasun eta subordinazioa gehitu behar zaizkio. Horrela, nahiz eta emakumea lan-merkatuan aritu, etxearen eta seme-alaben jagotza berea dela suposatzen da, honela, etxea-familiak orokorrean etekina lortzen du, baina lan merkaturan gizonezkoa da etekina lortzen duen bakarra, lan iharduera gehiago bideratzen baitio, prestakuntza hobea eta azken batean norgehiagotasun eta asmoen hobetzea.

Fokatzeko kritiko honen barruan beste hau ere planteatu behar da: enpresen papera eta zeregina. Enpresak erakunde sozialak dira (zehaztua den kontextu sozio-kulturalean jaito eta garatzen dira) eta erabiltzen dituzten mekanismoak ez dira mekanismo neutroak.

Ikuspegi honetatik lan giroetako "funtzionaketa era maskulinoen" analisisan sakondu daiteke, halaber, emakumeen gutxieneko egoeraz, zuzendaritza postuetarako ikasketen asimetriaz, zuzendaritza estiloen baldintzatzaileez, enpresen zuzendarien iharduera maskulinoetaz, lanbide-bazterketaz, lan tokietako sexu erasoetaz, ... Enpresaren zeregin honek errolen aldaketa oztopatzen du, zeinak ez duen jotzen desagertzera ez belaunaldien aldaketarekin ez ikasketen mailarekin ere.

3.1. EMAKUME ENPRESARI ETA AUTONOMOAK

Estatistika eta txosten ofizialetan, honako hau bezala zehaztu ohi dute emakume "enpresari": menpekotasunean lan egiten ez duten emakume langile-aktibo guztiak; horrela "enpresari" kontzeptua oso orokorra da eta lan merkatuaren barruan egon daitezkeen mailen artean hainbat eta hainbat egoera abarkatzen ditu.

Ez dugu hemen garatuko enpresarien gaia, ekoizpen iharduera garatzen duten eta beraien menpean langile ordainduak dituzten enpresa- jabe bezala ulertuak ditugunak (lan egiteko toki fisikoa, etxetik kanpo dutenak).

Enpresari portzentai hau oso baxua da, gehienetan egoera horretara familia-harremanen bidez heltzen direlarik (gurasoetatik alabeenganakoa) edo norberak sortutakoaren bidez (non edozein enpresaren garapen ekonomi ikuspegiak emakumezko hauei status pribilegiatutako ekonomi-gizarte eta hezkuntza harreman bereziak eskatzen dizkieten), kasu bietan aurrean duten egoera honako hau da: beraien inguruko lanbide esparruan "emakume horren" onarpena, ez orokorrean "emakumearen" onarpena, azken batean gizonezkoari gordetako errola betetzen ari baitira beraz, gizonezkoek beste "gizonezko" bat bezala onartzen dute eta gainera emakume hauek ere errol femenino orokorra beraien ordezkatzeko errolatik epaitzen dute, eta kasu batzutan gizonezkoak baino gogorragoak izanik. 1.990ean EEEn emakumezko enpresariak merkatu ofizialean ziharduten emakumezko guztietatik %1,9 ziren.

Puntu honetan arreta gehiago jarri nahi diogu emakumezko langile autonomoen kasuari, horretaz bereizten dugularik ohiturazko autonomo irudia eta gaur eguneko den "langile autonomaren gezurrezko irudia".

Horrela, autonomo definitzera honako emakume hau pasatzen da; ekoizpen lanbideak bere eskura dituen eta bere lan antolatzen duenak (komertzialgoa, zerbitzuak: ileapaindegia, jontugintza, estheticien-

neak, ...) eta azken hamabost urteetan garatutako gezurrezko irudia, non enpresa askok autonomoak kontratatzeraz jotzen duten beraien langilegoari malgutasuna emateko.

Hego Euskal Herrian autonomoaren erabilera gure ekonomian sartuta edo barneratuta dagoen de-serdiratze ekoizle prozesuen ondorioz gertatzen da. Era honetan bere lanpostua galdu duen emakumezko langileak autonomo baldintza eskuratzen du, lan egiten dueneko enpresaren menpean geratzen delarik erabat. Kasu askotan, emakume autonomo hauek, "famiaren laguntzaz" inguraturik daude; guzti horrek ekoizpen-prozesua kontrolatzen duten guzti haien baldintza gogorren menpean egotea erakarriz, lan baldintza murrizten prozesuan egotea suposatzen duen, murgilduriko ekonomian dauden langilei inolako enbidiaren zor ez dietelarik.

Langile autonomoek jasaten dituzten lan baldintzak kasu askotan, murgilduriko ekonomian ematen diren kopia dira, (lan ordutegi luzeak, baldintza eskasak, segurtasun eta higie ezak, alokairu murrizak etab). Honi gehitu behar sindikatuen babesik eza, ez baitira alokairupekoak, patroiak baizik. Azken batean, autonomoak dira baina menpekoa den lan-iharduera garatzen dute.

Ez dugu sexuen arabera garatutako estatistikarik baina AABren arabera (aktibitatearen araberako biztanlegoa) E.A.E.an 1994an merkatu ofizialeko langilegoaren %20a ez zen ordainpekoa.

Talde honetatik "Familia laguntza" deitutakoak ea guztiak emakumezkoak dira, kooperatibakoen kasua gero eta handiagoa delarik (Eroskiren zabalkuntza, kasurik gehienetan emakumezkoak kontratatzen dituelarik) baita autonomoak ere.

Emakumezko autonomoak gero eta gehiago dira honako esparru hauetan: banaketa siala (esnea, ogia, sendagaiak, edariak, ...) mezulariak garbitzaileak (bulegoetakoak, atarietakoak, etab), jostunak eta kontsumogaien saltzaileak.

Ez dago HEHrako ez ikerketa kuantitatibo ezta kualitatiborik ere, baina EEErako egindako ikerketek honako hau seinatzen dute: beraien enpresa sortzen duten emakumeek zailtasunetan diren arloetan dihardutela eta gainera alokairu eta kualifikazio maila baxuetan. Reich, Gordon eta Edwards-ek bi eratako lanpostuen banaketa arguiazten dute: babestuak eta ez babestuak. beraz, bi eratako lan-eskua merkatuko arlo bakoitzerako. Zerbitzuen arloan (babes gabekoa) emakumezkoen lan-postu gehienak egongo liriteke, beraien egonkortasun, kualifikazio eta promozio aukerak gizonezkoenak baino murriztagoak direlarik.

3.2. DENBORA ZATI BATEKO LANA

Nahiz eta puntu honek "Lan baldintzak" deituriko puntuaren zati izan beharko lukeen, interesgarri iruditzen zaigu aparte tratatzea eta azpimarratzea aparteko tratamendua emateko, zeren eta lan-merkatuko gaur eguneko politikak ("Lan-merkatuko Malgutasun Politikak") "izar" politika bezala aurkezten baitute eta Estatu Batuetako krisi ekonomikoaren jaultkitzearen arrazoi bezala saltzen digute.

Esan daiteke denbora zati bateko lana petrolio krisialdiaz geroztik gehien gehitu den enplegu-arloa dela mendebaldeko herrialde gehienetan. Denbora zati bateko lanean diharduten langile gehienak emakumezkoak direla baieztatu daitekeelarik.

Ekonomilari neoliberalak guzti hau emakumearen aurrerapen bezala saltzen digute, "lan-merkatuko zeregina etxeko zereginekin batera eramatea bideratzen dielarik", baina emakumeok jakin badakigu inoiz ez digutela ezer oparitu arlo honetan eta gehitu dezakegu "emakumeari lan merkatura sartzeko erraztasunak ematearen" filosofia honen azpian explotazioa areagotzeko era berriak aurkitzen direla, era honetako kontratu gehienek efektiboak izan daitezkeen lan-kostu gehienak murrizten baitituzte konbeniotik aparte geratzen baitira, baita programa sozial batzuetatik at ere, etab.

Ezin da esan denbora zati bateko lana alternatiba denik denbora osorako lanarentzat lan moeta guztietan, ordea, erabat segregatuta eta batez ere zerbitzu arloetan erabat feminizaturik dauden zereginetarako egokituriko zerbitzu bezala azaltzen da. Gainera denbora osorako lanaren alboan erabat ezberdinak diren ar-

dura eta lanak erakartzen ditu, eta horrek esan nahi du lanean parte hartze ezberdin bat baino zertxobait gehiago ere badela.

Bizitzaren aldi batean, denbora zati bateko lanean sartzeko gaitasunen arloan lan-merkatuan desabantailak izatera eramaten du, eta horri sartzeko orduan dugun adina dela eta izaten diren aukera mugatuekin, emakume askok nahiz eta denbora osoko lana nahi izan denbora zati bateko lanean segitzera eramaten ditu. Horrela, denbora zati bateko lanean diharduten emakume askorentzat ez da transizio-garai bat (semealaba txikien jagotzearekin batera eramaten dena), sarritan ordainketan eta enplegu-eran eragin iraunkorrek dituen egoera baizik.

Legeak berak argi uzten du zein nolako balorazio egiten duten emakumezkoek egin dezaketen lanaz: "helburua da denbora zati bateko kontratuak iharduera tasak igotzen lagun dezakeen eragile bihurtzea, entrepresen lan antolakuntza sistemak ekoizpen beharretara egokitzen uzten baitu; baita langilearen egoera pertsonal edo familiarretara ere. Hau dela eta, iraupen eskasagatik marginala edo bizitzeko ezinbesteko baliabidetzat hartzen ez diren iharduerak baloratuko dira".

Emakumezkoak elementu malgu bihurtzeko joera nagusia da, industria iharduera puntako aldietan eta zeregin anitzetan, erabiliak izateko; lan hauek ez diote erantzunik ematen benetako dauden "zati bateko lanen" beharrei, ordea, emakume langileen gainuztiraketa markatzen dute, egoera ezegonkorrean kokatuz.

E.E.ko hainbat herrialdetan egindako ikerketek emakumearen egoerarako enplegu era hauek atzerakoiak direla egiaztatzen dute. Guzti horien elementu amankomunak honakoak lirateke: alokairu baxuagoak, kategoria baxuko enpleguetan bazterketa, zerbitzuen alorrean murgiltzea, eta lan era honetara jotzen duten emakume gehienek ez dutela egiten lan ordaindua eta ordain gabekoa aldi berean aurrera eramateagatik, bai zik eta lan gabeziak gehien eragindako sexua delako eta ez zaiolako beste era bateko aukerarik eskeintzen.

3.3. LANGABEZIAN DAUDEN EMAKUMEAK

Titulu honen menpean lanera jo nahi duen emakumea lanik aurkitzen ez duena jarri nahi dugu, zeren dagoeneko adierazi dugu oso emakume gutxi ez duela lanik egiten terminu horrek adierazten duen sentzu hestuan.

Langabezia, berez, gizartean dagoen baztertze era bat da, gizarteratzeko dagoen esparru nagusienetarikoa batetik alde egitea. Lana duten pertsonen autoestima gehiago dute eta beraien ongizate psikologikoa hobe da.

Langabeziak erakartzen dien ondorio psikologikoen ikerttetan berorrek emakumeengan duen eragina oso sarritan ahaztu egin izan da, ea- ea ikerketa gehienak gizonezkoak kontutan harturik egin izan direlarik.

Datuen ikerketa apurrek, gizarteratzean norberaren identitatea eratzeko emakumezkoengan gizonezkoengan besteko garrantzirik ez duela enpleguak adierazten badute ere, langabeziak garrantzi erabakiorra du emakumezkoen ongizate psikologikoan.

Bestalde langabezi-egoerak ondorio negatiboak erakartzen ditu, zeintzu, paradojikoki, lana bilatzeko eta topatzeko beharrezkoak direnen aurkakoak diren. Egoera hau emakumezkoen kasuan areagotuta ikusten dugu.

Ezaugarri orokor hauen barnean, bi egoera bereizi behar ditugu: neska eta etxeakoandreen langabezia.

3.3.1. Nesken langabezia

Neskek adin gehiago dutenen emakumeekiko abaintaila ezberdinak dituzte: ardurra familiarra gutxiago prestakuntza gehiago, enpresarien jarrera hobe, etabar.

"Irudizko abantaila" guzti hauek, lana aurkitu ezean, frustrazioa areagotu baino ez dute egiten. Errealitateak argi uzten duenez, emakumezkoen belaunaldi berriek garaikideak diren gizonezkoekiko merkatu ofizialean lana aurkitzeko zailtasun gehiago dute. Hau dela eta emakume gazteen langabezi tasa % 75 baino gehiagokoa da (gazteenak % 55 gainditzen du); beraz, zigorra bikoitza da gaztea eta emakumea izateagatik. Azken urte hauetan, sektore zehatz batzuetan aurrekoei zigor politikoa ere gehitu behar diegu.

Gizartean leku bat bete orduko lanpostua edukitzea lehentasunezkoa bada ere, gaztaroan berebiziko garrantzia hartzen du, norberaren izatea kontsolidatzen baita. Gazteen langabezi tasa altuek ez dituzte ondorio ekonomikoak soilik, epe labur eta ertainetan azalaratuko diren beste arazo sakonen eragileak izango dira ere, dagoeneko haietariko batzu agerian daudelarik: independentzia izateko ahalmenik eza, handi-nahia- ren galera, balio ezaren sentimenduak, guraso- alaba/ seme harremanen txartzea, deliktibolez tipifikatutako jar- reren igoera, eta abar.

Lanik gabeko emakume gazteek badute beste arazo bat ere, sexu erasoena hain zuzen ere. Arazo ho- nek adin guztietako emakumezkoengan eragina izan arren, gazteak dira ukituenak, gizonezkoek "konprome- zurik gabekoak" edo "jaberik gabekoak" ikusten baitituzte. Eraso sexuala lanean ari direnen artean handia- goa bada ere, bilatzen ari direnek ere jasan behar izaten dute lanpostu bat lortzeko "prest egote" faltsu bat adie- raztea eskatzen baitzaie

3.3.2. Etxeko andreen langabezia

Atal honetan, eskondu ondoren lan munduan sartzea edo bersartzea erabakitzen duten emakumez- koei egiten diegu erreferentzia. Haietako askok, lehendabiziz hartzen dute erabakia, etxeko lanetan soilik ihar- dutzeak kasu askotan eragiten duen isolamenduak sortaraziko bizitza bete-ezari aurre egin nahian.

Orokorrean esan dezakegu lan merkatuan berri sartzeko edo bersartzeko oso abantaila gutxiko ego- eran dagoen kolektiboa dela hau; ez ezarrita dauden baldintza murriztailengatik soilik, baita kualifikazio baju eta lan esperientzi atzeratuta edota ezagatik ere. Beste aldetik, afektibotasunaren gainbalorazioan hezituta iza- teak etxe esparrutik entpresarenera igarotzean neurri handiko zalantza eta arazo subjektibo asko dakartza.

Kolektibo honen langabezi tasa ez euki arren, handia da; murgilduriko ekonomian "aktibitate tasarik" handien duen taldea berau da. PRA delakoaren arauera, 1994ko II. hiruhilabetean, EAEko emakumezkoen lan- gabezi tasa % 35,4koa zen eta HEH %33 baino gehiagokoa.

Emakumezkoen langabezi tasak 35 -44 urte bitartean mailarik altuenak jotzen ditu. Adin hauetako tal- dean aktiboki dihardun emakume batek langabezian egoteko duen probabilitadea gizonezko batena baino 2,4 handiagoa da.

Datu hauek sexu eta egoera zibilaren arabera aztertuz gero, ikus dezakegu aktiboki diharduten ema- kume eskonduen langabeziaren probabilitadea diferentziala altua dela aktiboki diharduten gizon eskondueki- ko, probabilitade hau hiru aldiz altuagoa delarik.

3.4. LAN BAZTERKETA

Bazterketa maila ezberdinak zehazteari egoki deritzogu: zuzena, izkutukoa eta zeharkakoa.

Bazterketa zuzenean, egintzak edo uzteak ematen dira non arrazoi bakarra baztertuta den taldekoa izatea baita -sexu, arraza, ideologia, etabar-. Legeak debekatzen baditu ere, oraindik bertan diraute: "garbi- ketako emakumeak"...

Izkutuko bazterketan, ezberdintasunaren arrazoiak baztertuta den taldekoa izatea da ere, baina jarre- ra hau izkututzen da izendapen edo instituzioen pean, non bazterketa, jadanik, ez baita hain agerikoa. Adibi- dez, "garbiketako pertsonala" -jadanik ez da markatua- gehiengoa emakumezkoek osaturik eta lansari ba- juekin izan arren.

Zeharkako bazterketan, emakumezkoei zuzendutako tratu baztertzaila neutro omen diren faktoretan eta bazterketaren galerazpenaren aurkakoak ez direnetan oinarritzen da. Honela deritzo "sexu bateko edo besteko pertsonak era desproporzionatuaz kaltetzen dituenen, eta ez dago objetiboki justifikaturik inolako arrazoi edo egoeragatik". Berau antzematea oso zaila da, eta are zailagoa ezabatzea.

Euskal emakume langileek jaso behar dituzten lan bazterketaren ezagupenak, lekuz lekuko azterketa eskatzen du, bertan sektore/lantegi eta maila profesionalen azterketa eginez.

3.4.1. Kontratazio librea

Gaur egun praktikoki legalak dira kontratazio mota guztiak: kontrato administratiboak, laboralak, aldi baterakoak, mugagabeak, denbora zati batekoak, behinbehinekoak, praktiketan, formakuntzakoak, lanpostua bultzatzekoak, etxeko enpleguak...

Entrepresak ahalmen osoak ditu pertsonak bere behar eta interesetara egokitzeko, beronek ezartzen dituen denbora eta baldintzen arabera. Hau dela eta, lan baldintzak eta -berauren hobetzeko posibilitateak une honetan kontratu motaren pean daude.

Kontratazio erak eta errekonbertsio politikak lorpen laboralen ezabapena ekarri dute; "hartzea ala uztea" besterik ez dagoelarik. Era berean, enpresarien joera emakumezkoak ez kontratatzeke areagotu egin da.

Ezberdintasun nabari dago sektore publiko eta pribatuaren artean. Egun legediak edonolako kontratu baimentzen du Administrazio publikoetan ere, baina oposaketa sistemak, elkárrizketarik ez egoteak eta sindikal kontrolak tresna zuzentzaile gisa jokatzeko dute.

3.4.2. Sexuen araberako lan banaketa

Lan munduan ematen den egoeraren islada gisa, lantegietan ere sexu- araberako lanpostuen banaketa gertatzen da. Gain gainera begiradak zera argitzen du:

Orokorki, emakumezkoek "beraiei dagozkien" lanpostuak bete behar dituzte, eta ez da kasualitatea lanpostu hauek kategoría baxuenetarikoa izatea. Lantegietako lanpostuen zerrendak begiratzea besterik ez dago; hizkuntza berak isladatzen du egoera hau (erderaz: director, jefe... baina telefonista, limpiadora...). Goi mailako kategorietan edota ardura handiko karguetan, aldiz, ez dago ia emakumezkoen agertzen.

Sailkapenetan, behe mailako lanpostuek ez dituzte soilik prestigio eta soldata baxuagoak, lan baldintzak ere txarragoak izaten baitira. Eta emakumezko kasuetan promozio aukerarik eza gehienetan.

3.4.3. Soldata baxuagoa "emakumezkoa izateagatik"

Sinestezina baina honela da. Azken urteotako aldarrikapen nagusia izan arren, ez da gauza handirik lortu eta emakumeon soldatak baxuagoak izaten dira lan arlo askotan. Ezberdintasun hauek modu hirukoitzean gauzatzen dira:

1. Komenio taulak ikusiz, argi dago emakumezkoen osatuta dauden sektoreetako (textil, kontserbera...) soldatak askoz baxuagoak izaten direla, tradizionalki gizonen sektoreak (metala...) direnekin konparatu. Bitxia zera da, zenbait kasutan patronal eta sindikatu berberen negoziatzen dituztela komenio horiek.

2. Topikotzat jo arren, agerikoa da komenio gehienetan soldaten taulak emakumezkoen ixten dituztelarik, gizonen taulak zabaltzen dituzten bitartean. Bereizitasuna izanik, oso gutxi direla "lehen" kategorietan daudenak, aldiz gehiago bat azkenengoetan. Era berean, ezin dugu ahaztu "komeniotik at" nominan ere pertsona gehiago dagoela: gutxi batzuek gorantza (zuzendariak, konfidantzako karguak, enpresariak...) eta asko beharantza (ordezkapenak, azpikontratak, denbora baterako...)

3. Horrez gain, praktikan kategoría bera bada ere, emakumezkoen soldatak baxuagoak izaten dira. Egoera hau ilegala denez kategoriak bereko langileek soldata bera izan behar dutelako, aitzakiak bilatzen dira "ezberdinatsunak" izateko: ikuskaritza lana...

3.4.4. Promozio eza

Emakumezkoek, jasotako heziketa eta prestakuntza profesional alde batera utziz, enpresetan kasu gehienetan promoziorako bidea itxita dute; Administrazio publikoan ere, hautaketa eta promozio prozedurak objetibotzat hartu arren.

Hamaika zeharbide bilatzen dira bazterketa hauek "naturalizat" bezala agertarazteko:

- Kasu anitzetan, promozioa pertsona (gizonezko) zehatzei egokittuta dago eta parte hartzeko baldintzak beraiek bakarrik betetzen dituzte
- Beste zenbait kasutan emakumezkoek betetzen ez dituzten baldintza zehatzak eskatzen dira, zenbait lanpostutarako beraiek ez baitira onartuak izaten... Azken "elkarrizketan" ematen diren puntuak (gizonik) "onena" erabakitzen dute.

Bestaldetik, errealitateak emakumezko gehiengoaren gertutasuna urria dela frogatzen du. Gaur egun ere, etxeko eta etxekoen ardurak emakumezkoena izaten jarraitzen baitu.

Bitxia da ohartzea zelan edozein gizonezko nahiko errez konpatibilizatzen dituen soldatapeko lana, parte hartze soziala eta aitatasuna, emakumezkoek ezina zaien bitartean. Zergatia begibistan dago.

3.4.5. Prestakuntza

Ikasketa maila eta lanbide heziketa emakume langileen bazterketa gauzatzeko oinarritzat hartu diren topikoak izan dira. "Kualifikaziorik eza" justifikapena zen emakumeen sarrera lan merkatuan ukatzeko eta, era berean, edozein profesional eremutan, maila bajeuenetan bere lekua kokatzeko.

Ikasketa mailak -egun hainbat sektoretan emakumeena gizonena baino altuagoa- ez du ziurtatzen lan merkatuen baldintza ez baztertzailerik:

- unibertsital ikasketa dutenen pertsonen artean, langabezia kopurua altuagoa da emakumeengan,
- enpresa pribatuak ez du emakumerik kontratatzen lanpostu zehatz batzuetan,
- sektore edota lanpostu zehatz batzuk emakumeentzat betaturik jarraitzen dute.

Oraindik ere, espediente ona eduki, frogak gainditu eta emaitzak ezagutu arren, kasu gehiegi dira non emakumezkoek ikusten duten gizonezkoak kontratatuak izaten direla, nahiz eta puntuaketa bajuagoak lortu. "Garbiketa"k elkarrizketa izaten jarraitzen du.

Egun, lehen bezala, gizonezkoa edo emakumezkoa izatea kasu gehiegitan titulazioaz gain lanpostuaren determinatzailea da. Halere, maila bajeuetan, titulaziorik ezak arazo bikoitza dakar:

- titulazio gabeko emakume langileek beraien lanpostua arriskuan ikusten dute berauek eskuratzeko ez dituzten tituluak eta mota akademiko birziklapena exigitzen baitzaizkie,
- maila bajeuetan kokatuta dauden emakume langileak, titulazio falta dela eta, beste lanpostuetara joan ezin dutenak, profesionalki birziklatzen ez badira.

Honetarako denbora eta dirua beharrezkoak dira, eta errealitateak argi uzten du emakume gehien hauen gertutasuna mugatua dela, familia eta etxearen ardura ere baitute. Hauxe dugu beste era bat eredia eta bazterketa iraunerazteko.

Horrez gain, sortzen diren lanpostu finko berrietarako goi mailako titulazioa gehi kualifikazioa eskatzen da. Egun, oso lanpostu gutxi agertzen dira langile ez kualifikatuentzat (eta maila honetan kokatzen dira adi-na eta familia ardurak dituzten emakumezko gehienak).

3.4.6. Eraso sexistak

Eraso sexistatzat hartzen dira "pertsonek zuzentzen zaizkion sexu portaera eta jokabideak beronen aldetik onartuak ez direnean". Hau dela eta, beronek esan beharko luke jokabide zehatz batek minduta sentiarazten duen ala ez. Baina praktikan ez da horrela gertatzen.

Lan legedian erabateko hutsunea dago jokabide hauek arautzeko. Egoera hauek ez daude lan arau-hauste gisa tipifikaturik, beraz, bide legala erabiliz ezin dira zigortu. Horren ondorioz, oso salaketa gutxi jartzen da, eta gutxiagok egiten du aurrera.

Salaketak ugaldtu badira ere, gehienak ez dira argira irteten; arrazoiak ugari eta ulergarriak dira, nagusia salatzen duena salatu bihurtzen baita, joera patriarkalak, bere hitza zalantzan jartzen duelarik:

- Bere aldetik ez zela inolako probokaziorik izan frogatu beharko du, baita erasoaren aurkako erresistentzia izan zuena ere.
- "Frogak" aurkeztu beharko ditu, eta lekukoak kasu grabeean.
- Kasurik onenean, "ulertzea" edo txantxak eramaten ikas dezan eskatuko zaio; enpresari salatzeak lanpostua galtzea ekar diezaiokeela ahaztu barik...

Maila honetan ere oso zaila da mugak non dauden definitzea. Zenbat bider entzun da emakumezko batzu "hipersentiberak" direla, "ez dela horrenbesteko izan"...

Baina aurrera joaten diren salaketak ere, hots, emaitza aldekoa izaten denean, beranduegi agertzen dira eta maila pribatuan geratzen dira.

Guztion lana da arazo hauen aurrean "begiak ez ixtea", eta erantzunkizun sindikala irtenbide egokiak bilatzea, langileekiko elkartasuna (guztien artekoa ez bakarrik gizonen artekoa) gauzatzeko aurrepausuak ematea

3.4.7. Eskubide sindikalak

Nahiz eta eskubide sindikalak amankomunak izan, esperientziak behin eta berriz, erakusten du sindikalki emakume langileek gizon langileek baino babes gutxiago dutela. Arrazoiak anitzak dira:

- Lan ezegonkorrean aritzen diren pertsonen, ekonomia murgilduan etabarrean, ez dute ordezkari sindikala eta ez daude antolatutik. Egoera hau lan baldintzen beraien ondorioa da.
- Iharduera sindikalean faltsuzko neutraltasuna: emakume langileena ez da gizon langileen problematika bera, baina ez da aintzat hartzen.

- Menpekotasun ekonomikoaren baldintzek, ideologikoez, patronalaren prepotentziak... ahultasun hori indartzen dute.
- Lantokien giro sexistak, sindikal axolagabekeriak, lankideen jarrerak ere laguntzen dute.

-Legediaren eta epaileen izaera patriarkala emakume langileen babes sindikal ezari gehitu behar dugu. Babes hau areagotzen da sektore zehatzetan: etorkinak, ama ezkongabeak edo banatuak, kultura maila baxukoak...

4. ERANTZUN ANTOLATUAREN BEHARRA

4.1. Mailak

Euskal emakume langileok pairatzen dugun egoera larria gainditzeko maila bi hartu behar ditugu kontutan: soziopolitikoa eta sindikala.

4.1.1. Soziopolitiko

Esparru honetan irtenbideak bultzatzea egungo marko sozio-politikoa gainditzeko da. Euskal langileen aldarrikapenei erantzuteko marko horren baliogabetza frogatu da behien eta berriro; menekotasuna eta ahalmen eza agerian utziz.

Honek esparru sindikala gainditzen du eta helburu orokorra zera izango luke: Euskal nazio eraiketa eredu sozioekonomiko ez patriarkala gauzatu.

Ekoiaren sistema eraldatu eta bere ondorioa, hots, sexu araberako lan banaketa, gainditzeko da helburua. Horixe da bidea emakumeon zapalkuntza ezabatzeke eta giza harreman parekideak izango dituen euskal gizarte askea lortzeko.

Sexu araberako lan banaketaren bitartez gauzatzen da populazioaren erdiaren zapalkuntza, zeinak bazterkeria ekonomiko sortzeaz gain, emakumeon gutxipen soziala ere dakarren.

Herri borroka antolatuan aurkituko dugu irtenbidea, sindikatu eta herri erakundeen arteko lan bateratuan. Horretarako, mugimendu feministarekiko elkarlana ezinbestekoa litzateke, emakumeon antolaketa zein borrokaren aintzindaria baita.

4.1.2. Sindikala

Ekinbide sindikal orokorrari ardatz hauek gehituko zaizkio:

4.1.2.1. Sistema kapitalistari dagokio sexu araberako lan banaketa gaitzetzeko eta borrokatu, desagerpeneraino

4.1.2.2. Etxeko produkzio/lanari balorazio sozio-ekonomiko egokia eman; horretarako produkzioaren aktibitate tasak erabili indikadore gisa eta etxeko lanaren sozializazioa helburu

4.1.2.3. Giza zerbitzuak sortu, erakunde publikoek ordainduak, eta familia ardua zein etxeko lana sexu bien artean banatu.

4.1.2.4. Langileen arteko baldintzen berdintasuna lortu, lan merkatuaren aurrean dauden bereizkeriak -objektiboak zein subjektiboak- ezabatuz

4.1.2.5. Euskal emakumeon lanpostu duina izatearen eskubidea betearazi, hau da, gaur egun, emakumeon lanpostuen defentsa bideratu.

"Emakumeontzako lanpostu duina" eskatzeak zera esan nahi du:

*Behinbetiko lanpostua, lanbaldintza egokiak, soldata justua eta harreman parekideak dituen, sexu bereizkeriarik gabekoa.

*Emakumeak beti aritu dira soldatapeko lanean, lan murgilduan kasu gehienetan, familiaren beharren arabera. Arauturiko lan merkatuan sartzea izan da azken urteotako aldaketa esankorra. Hortik lanpostu "duinaren" beharra, bestelakoa badute eta.

*Lan merkatu arautuan, kolektibo gisa formalki baino ez zaie onartzen soldatapeko lana izateko eskubidea. Legediaren hitz hutsak eta praktikaren errealitate latzaren arteko amildegia salatu behar da, itxurazko sasineurriak (ekintza positiboa, ordukako lanak eta antzekoak) agerian utziz.

Egoera hau dela eta, sindikalgintza soziopolitikoak emakume langileontzako planteaketa berezia eskatzen du. Baina planteaketa berezi horrek emakume talde ezberdin bi izan behar ditu subjeto:

- lan merkatu ofizialetik kanpo dauden emakume langileak, eta
- lan merkatu ofizialean lanpostu "normalizatua" dutenak

4. 2. Arauturiko lan merkatutik kanpo diharduten emakumeak

Egungo egoera soziolaboral larriari -langabezia, behinbehinekotasuna, langileen zatiketa...- erantzun behar zaio.

Sistemak, ekonomia dual deiturikoa erabiliz, ondasun eta lan banaketa desorekatua bultzatzen du. Testu inguru honetan zapalkuntzak eta bereizkeria sozioekonomikoak emakumezkoengan eragin berezia dute. Pobrezia boltsak eta talde baztertuak osatzen dituztenen artean emakumeak dira gehienagoa.

Giro latz honetan, instituzioek proposaturiko bidea bakarkako erantzunak ematea -karitatezko laguntzak- izan ohi da; bitartean egoera marginalak biderkatzen dira.

Arazoa sozioekonomikoa denez gero, erantzunkizuna gizartearena da. Ondasun zein aukeren banaketa egoia da injustizia egoerak gainditzeko era bakarra, irtenbideak kolektiboak izan behar dira eta ez indibidualak.

Bide honetan, marko legalak zabaltzen dituen zirrikituak -berdintasuna, eskubideen onarpena...- aprobetxatu behar dira, baina laguntza handirik espero barik.

Nola bermatu babes soziala kolektibo hauei? Nola heldu sektore horiei, beraien autoantolaketa bultzatuz?

Ekinbide sindikala eraldatzea ardatz hauen inguruan eratuz ezinbestekoa da:

4.2.1. Ekintza sindikalaren esparrua giza arlo baztertuetera hedatu, eta langilegoaren kontzeptua zabaldu. Langabetuak eta ekonomia murgilduan -etxean edo kanpoan- dihardutenak

4.2.2. Emakume talde sozio-ekonomiko ezberdinen lan egoerak aztertu eta irtenbide sindikalak garatu

- Ekonomia murgildua: etxeke lana, dohainik edo soldatapean
- Behinbehinekotasun edota ordukako lanak
- Pobrezia boltsak

4.2.3. Arauturiko lan merkatutik kanpoko lan egoerei garrantzi berezia eman, ekinbide sindikalean sartu, eta emakumeen aldarrikapenak bereganatu

4.2.3.1. Lanordutegi bikoitzaren aurkako neurriak

- Etxeko-kanpoko lanak konpatibilizatzeko beharra ekiditu
- Etxeko lanaren sozializazioa aldarrikatu
- Familien beharrak (haurrak, helduak, gaixoak...) asetzeko giza zerbitzuak lortu; daudenak orokortu eta berriak sortu

4.2.3.2. Lan eskubide oinarritzkoak bermatu

- Lanpostuen aurreko neurri zuzentzaileak jarri, egoera sexistak gaindituz
- Kontratazio finko eta egokiak ziurtatu
- Soldata zein kategoria berdintzaileak finkatu
- Prestazio sozial parekideak lortu

4.2.4. Ekonomia murgilduan aritzeak dakarren kosto sozio-ekonomikoari aurre egin

4.2.4.1. Emakume langile hauen bizitzaren kalitatea beharpenaren aurkako neurriak hartu

4.2.4.2. Krisi egoerak emakume langileentzat suposatzen duen kosto bikoitza -etxean eta lan munduan- ekiditzeko aldaketak bultzatu

4.2.4.3. Ondasun, aukera eta lan banaketa egokia aldarrikatu

4.2.5. Emakume langabezi tasak aztertu eta neurri konpensatzaileak bideratu sektorerik behartsuenentzat

4.2.5.1. Datu ofizialak gainditu, errealitatea estaltzen baitute

4.2.5.2. Sexu aldagaia sartu, "riesgo" taldeak azpimarratuz

4.2.5.3. Egoera sozio-ekonomiko ezberdinak kontutan izan

4.2.5.4. Lan banaketa parekidea ziurtatu

4.2.5.5. Neurri konpensatzaileak bultzatu

4.2.5.6. Ekonomia murgildutik lan merkatu arauraino bideak zabaldu

4.2.6. Arauturiko lan merkatuan aritzeko dauden oztopo objektiboak -lan merkatuarenak eta etxeok- agertarazi, salatu eta gainditu

4.2.6.1. Familia ardurak eta etxeko lanak kontutan izan

4.2.6.2. Etengabeko heziketa eskeini behar duten talde behartsuenentzat

4.2.6.3. Emakumeek lanpostua izateko eskubideari lehentasuna eman

4.2.6.4. Enpresarien aurreritzien aurkako planteaketa borrokatu

4.2.7. Eguneroko iharduera sindikalean jarrera kritikoa izan

- 4.2.7.1. Ondorioak konpontzeko, arrazoiak konpondu
- 4.2.7.2. Sexu aldagaiak klasea zeharkatzen duela onartu
- 4.2.7.3. Heziketa eta gaiarekiko sentsibilizazioa landu

Emakume eta gizon langileen interesak ezberdinak dira, eta kontrajarriak izan daitezke, zapaltzaile/zapalduen arteko harremanak gainditzen ez badira

Giza erakunde eta sindikatuen arteko lan koordinatuaren eskutik etorriko dira irtenbideak, elkartasunezko jarduerak ezinbestekoak direlarik.

4.3. Lan merkatu arautuan dauden emakumeak

Emakume sektore hauen antolaketa eta erantzuna sindikatuen bidez eman ohi da, baina ezinbestekoa da emakumeontzako berezko estrategia eratzea. Orain arte orokorra omen zen planteaketa sindikalak ez ditu emakume langileen berezko arazoak kontutan izan, ez teorian ezta praktikan ere.

Emakume langileen egoera "galdu" egiten da neutraltasun edo orokortasun faltsu batean. Faltsua, alde bate-tik, erreferentzia gizon-emakumeak izatearen ordezt "gizonak" direlako eta, bestetik, egoera soziolaboral ezberdinak berdintzat jotzeak, desorekak areagotzeko eta arazoak estaltzeko baino balio ez duelako.

Planteaketa sindikal egokiaren oinarriko aspektuak izango lirateke:

4.3.1. Ekinbide sindikalean emakume langileen problematika sartu

- 4.3.1.1. Ardatz nagusien zeharkatzaile gisa
- 4.3.1.2. Ekinbide errebeindikatiboetan
- 4.3.1.3. Negoziazio kolektiboetan

4.3.2. Azterketa zein irtenbide guztietan sexu aldagaia sartu,

- 4.3.2.1. Egoeraren azterketak egiterakoan, estadistikak, datuen jasoketa, azterketa eta erabilpena
- 4.3.2.2. Hizkuntza egokia erabili, emakumeen izatea agerian utziz

4.3.3. Emakumeekiko bereizkeria, izkutua ere, azaleratu eta neurri bideratzaileak jarri

- 4.3.3.1. Kontratazioak zaindu eta bereizkeria ezabatu, lantokietan kontrol batzordeak martxan jarri
- 4.3.3.2. Lan eskeintzetan sexuen arteko banaketa parekidea baina konpensatzailea ziurtatu, eta zenbait lanpostutan ematen diren sexu araberako banaketak ezabatu
- 4.3.3.2. Lanpostu zein kategorien ebaluapena berrikusi eta zuzendu
- 4.3.3.3. Heziketa eta promoziorako bide konpensatzaileak hartu

- 4.3.4. Lan baldintza hobek bideratu eta negoziatu, sektore zein lanpostu bereziekin bukatu
- 4.3.5. Emakume langileen parte hartzea bultzatu; negoziaketa prozesuetan eta erabaki guneetan presentzia orekatua ziurtatu
- 4.3.6. Langile zein afiliatuen artean sentsibilizazio eta heziketa bermatu
- 4.3.7. Partaidetza zein praktika koherente eta alternatiboa gauzatu, bai desegituraketa ekonomiko-industrialak, desoreka sozialak, langabezia... mantentzen dituen marko politikoari aurre egiteko, baita enpresarien aurrean ekiteko.